

HERNANIK kronika

2004 urtea
Apirilak 9
Ostirala
Alea: 1073
www.kronika.net

RAFA LARRETXEA, JOXE ELOSEGI ETA JON IRAOLA -ERRUGBI ELKARTEA

"Blokea mantendu eta jende gaztea sartu da harrobitik; hori da arrakastaren sekretua"

■ Ohorezko B mailan jokatzeko babesle bila hasiko da Kluba, denboraldi honetan baino 36 mila euro gehiago beharko baitituzte ■ Oraingo blokea mantendu eta errefuerzoren bat ekarri nahi dute datorren denboraldirako.

HERNANIKO errugbiko lehen taldeak Ohorezko B mailara igotzeko zailena lortu du, postua zelaian irabaztea. Orain bulegoetako lana eta denboraldia kategoria berriko prestatzeko lana hasten dira eta guzti horren berri eman digute Rafa Larretxeak, Joxe Elosegik eta Jon Iraolak, igandeko zelebraziotako bihamarun pixka batekin, baina, ilusioz gainezka.

Bost urteko blokea

Aurtengo arrakasta nondik eterri den galdetuta nahiko garbi dauka klubak: "Hernani 1999an igo zen lehen mailara eta orduan 21-22 urteko bataz bestekoa zuen taldeak. Ordutxo taldea mantendu egin da, gutxi gora behera, eta harrobian talde onak izan ditugu eta jende gaztea sartu da lehen taldera. Aurtzen 24-26 urteko bataz bestekoa du taldeak eta orain bost urte egurra ematen ziguten taldeei gaina hartu diegu". Harrobiari garrantzia haundia eman izan dio beti Hernanik, Klubeko arduradunek Kronikari esan diotenez: "Hernanin jendea beti izan da eta azpitik katea beti izan da. Klub sendo bat izateko eskola ezin da galdu". Hala ere jende gehiago ere hartuko lukete gazteen kategoriatan, zenbait ekipo ateratzeko justu xamar ibili izan baitira.

Errefuerzoak

Ohorezko B mailan ondo ibiltzeko, aurtengo taldea mantentzea da lehen pausa, eta badirudi jarraitzeko prest dau dela jokalariak. Horrez gain errefuerzo batzuk ekarri nahi ditu Hernanik, baina, taldea



Ezkerretik Joxe Elosegi, Jon Iraola eta Rafa Larretxea, Landaren.

ren filosofia aldatzeko asmorik ez du: alegia, jokalariak ez dituela ordainduko, bidaia eti gastuak salbu, noski. Bestalde, aurten ez dira asko jubileatik goiko taldera igo litezkeenak eta bila hasi beharra daudak. Horrez gain, Ohorezko B mailan egoteak eskatzen du bigarren talde bat, jubenil talde bat, eta kadete talde bat izatea eta infantil eta alebinen taldea ere badagoenez, 120 bat jokalari behar ditu Hernanik ondo ibiltzeko, arduradunen hitzetan; eta hori izango da beste lana, jende gaztea animatu araztea. Hala ere Hernani errugbi tradizio haundiko herria da eta gutxi edo gehiago, jendea beti izan da taldeetan.

Babesle bila
Datorren denboraldian Baratzelonako bi talde, Asturiasko beste bat, Galiziako beste, Santander, Durango, Ordizia edo Madrilgo talderen bat eta Hernani izango dira ligako beren grupoan eta Hernanik bidaia luzeak egin beharko ditu partiduak jokatzeko. Horrez gain, errefuerzoren batzuk ekarri ezkerro, bidaia eta gastuak ordaindu beharko zaizkie. Kronikari esandakoaren arabera aurtengo denboraldian baino 36 mila euro gehiago (6 miloi pezeta) beharko ditu taldeak, eta diru hori bildu ahal izateko babesle bila hastekotan dira. Ez dakite babesle bat edo bat baino gehiago beharko dituzten.

OHOREZKO MAILAN
Hernani bezalako herri batetako meritu galanta da Ohorezko B mailan taldea izatea eta aurtengo lorpena haundia da. Hala ere gorago ere ibili izan da Hernani: 1978tik 1985era Ohorezko mailan jokatu baitzuen. Lau urtetan txapeldunorde gelditu zen, CAU, Arquitectura eta Santboianaren atzetik. Lehen taldeaz gain gazteek ere sari haundiak lortu dituzte eta 1996tik gaur arte urtero atera dute txapelaren bat. Aurtzen, jubenilak Euskadiko Txapeldun dira eta Estatuko txapelketako final zortzirenak jokatzen ari dira eta Kadete, infantil eta alebinak paper ona ari dira egiten ligan.

Aberri Eguna herriz herri

LOREN Arkotxa lehendakari duen Udalbiltzak deitura Aberri Eguna ospatzeko ekitaldia izango da igandean Hernanin. Ekitaldia eguerdiko 12:00etan hasiko da Gudarien plazan. □

EHNA tramitatzea

BAI Euskal Herriari taldeak EHNA tramitzeko eguna deitu du Aberri Egunean. 11:00etatik 13:00etara egongo dira plazan. Aurkeztu behar dira: 3 argazki, 10 euro eta Padroi agiria (padroi agiririk eraman ez arren jasoko dituzte argazkiak eta dirua). □

Mendiriz Mendik ibilia

antolatu du Artzamendira

MENDIRIZ Mendik helduentzako irteera antolatu du apirilaren 18an. Plana da Itsasutik irten, Artzamendi igo (926 metro) eta Bidaraira jaistea. Izen ematea apirilaren 15a baino lehen egin behar da Mendiriz Menden. Prezioa: baziodeek 8 euro eta baziode ez direnek 11 euro.

Bestalde, gaztetxoentzako hurrengo irteera ere antolatu du Mendiriz Mendi elkartek, Beasaingo Usurbe mendira (707 metro). Apirilaren 25ean izango da eta izen ematea hilaren 22a baino lehen egin behar da. Prezioa: gaztetxoek 2 euro eta helduek 4 euro. □

Gurutzbidea gaur

GAUR, Ostiral Santu eguna, goizeko 08:30etan Gurutzbidea egingo da Santa Barbarra eta ondorenean meza izango da hiru parrokietan. Arratsaldean Pasio Ospakizunak izango dira Ereñotzu, Florida eta Kaxkoko elizan. □

■ XAKEA

Izen ematea luzatu

HERRIKO Xake txapelketan izeina emateko epea apirilaren 28 arte luzatu dute. Bodega, Kitto, Goiz Argi, Aker edo Haidan apuntatu behar da. □

Roberto Dos Santos - FISIOTERAPEUTA
Kol. Zkia: 313



Fisioterapia zentru berria Antziolan

TRATAMENDU TEKNIKAK:
- Osteopatia
- Eskuzko terapiak
- Elektroterapia
- Termoterapia: *ultrasonidoak, "onda corta",...*
- Masajeak: *terapeutikoak eta kirol masajeak*

LESION TRATAMENDUA:

- Traumatologikoak *esgintzeak, kontrakturak,...*
- Reumatologikoak *tendinitis, artrosiak,...*
- Neurologikoak *hemiplejia, paralisiak,...*
- Kirol lesioak *Fibra hausturak, sobrekargak,...*

Istrujo aseguruak eta etxeko atentzioa

KIMERA Fisioterapia - Antziola 16 behe (Gunearen aurrean) - Tel.: 943 556 427

ITXASPE
Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobil: 653 74 10 97
20120 Hernani



Antziola-Motor

Salmenta eta tailler zerbitzua

Ford FocusC-MAX

Ford Focus
familiako
kide berria

Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72

Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13


Joxe Angel Aranburu bertsolaria Osiñaldeko finalean

■ Hilaren 17an kantatuko du, larunbatean, Gabirian ■ GR-4an Hernani Orioren aurretik.

ASTEBETE barru Osiñalde Sariko final sonatua jokatuko da eta Joxe Angel Aranburu hernaniarra han izango da. Osinalde Saria bertsolari gazteentzako sarketa da. 18 bertsolari kantatzen dute hiru saiotan banatuta eta saioko aurreneko biak sartzen dira finalera. Aranburu ez ezik, Hernaniko bertsosko eskolako Agin Rezolak eta Izarne Zelaiak ere kantatu dute aurten txapelketa horretan, baina, ez dira finalera iritsi.

GR-4 Bertso ruta

Hernani, Oiartzun, Orio eta Lasarteko bertsolariak taldeka jokatzen ari diren GR-4 txapelketa ere aurrera dijoa. Hernanik hiruko sei talde ateratzen ditu eta lortu berri du txapelketako aurreneko garaipena, Orioren kontra. Hernaniko taldean Iñaki Zelaia, Xabier



Joxe Angel Aranburu kantari.

Legarreta Arano eta Joxe Angel Aranburu aritu ziren kantari, eta saio ederra eginda nagusitu ziren Orion. Orain goz, bat irabazi eta bat galdu dituzte irauliotarrek.

Hurrengo saioa Hernanin bertan izango da apirilaren

17an, Zingi Zanga tabernan, 23:00etan. Hernanitik Urdangarin, Zerain eta Minerrek kantatuko dute Oiartzunen kontra. Saio aurretik afaria dago 21:00etan. Afaltzera joateko asmoa duenak 657 707409 telefonora deitu. Prezia: 15 euro. □

ATLETISMOA



CD Hernaniko atleta infantil guztiak, Donostian jokatutako probetan.

Maddi Iradik zilarrezko domina 60 metro hesietan

MADDI Iradi C.D. Hernaniko atletismo saileko korrikalaria Gipuzkoako bigarren gelditu da 60 m hesietan, Elgoibarren jokatutako probetan. Alebain mailako probak ziren eta hernaniar gehiago ere izan ziren: Ana Herrero pisuan 12garren gelditu zen eta Ane Villaverde altueran 9garren.

Anoetako miniestadioan, berriz, Kluben Gipuzkoako txapelketa jokatu berri da, infantiletan, eta C.D. Hernani han izan zen neska eta mutilen

talde banarekin. Parte hartzeko sistemak kalte egin bazen ere lan ona egin zuten. Proba luzeenetan hernaniarrak txapeldun gelditu ziren: Mikel Von Wichenmannek 500 m 1:20:62ko denboran korritu zituen; 1000 mko proban Joxeba Lizeagak 3:06:38 egin zuen eta Eider Alabek, 3:14:19. Azken hiru korrikalari hauek Gipuzkoako ranking-ean buru dira, bakoitzaz bere mailan.

Altueran, Joxeba Lizeagak 1,49 mko listoia salta eta 2ga-

rren egin zuen; 80 m hesietan Txomin Lizeagak eta Maitane Iruretagoienak 3garren eta 4garren postua lortu zuten; 150 m-tan Manex Pagolak 4garren egin zuen. Pisuan, Servando Rivas eta Laura Madina 5garren eta 6garren geratu ziren, eta Esther Pérez 8garren geratu zen 80 mko karreran. Luzeran, Estibaliz Lioneak ere 8garren egin zuen. Orain Gipuzkoako txapelketa individualak datozen eta hernaniarrek esperantza haundiak dituzte. □

dobEra
EUSKARA ELKARTEA

DOBERA SARIA II. EDIZIOA
3.000 EUROKO DIRU LAGUNTZA

HERNANIRI BURUZKO LAN BAT SARITUKO DA:

- Banaka zein taldeka egin daiteke.
- Lana euskaran aurkeztu behar da.
- Lana egiteko epea: 6 hilabete.
- Proposamenak aurkezteko epea apirilaren 30a.
- Agiri guztiak Dobera Elkartera bidali behar dira. (Larramendi - 11 ; Telf: 943-332799)

Hernaniko Udala

brintza
Brintza, S.L.

Lan aholkularitza
Aholkularitza fiskalak
Aseguruak, Inbertsioak

Juan de Urbieta 15
Tel.: 943 331267
Faxa: 943 330892
20120 Hernani

BIHAR, LARUNBATA, EZ DA KRONIKARIK IZANGO

ERREMONTEA



Ezkurra izango da bihar Galarraga protagonistetako bat.

Galarreta frontoian partiduak larunbatetik astelehenera

■ Bihar Ezkurra-J.Etxeberriak Altuna I-Lizasoren kontra jokatuko dute ■ Jaialdia 16:30etan hasiko da.

ERREMONTEA ikusiz gozatu nahi duenak Galarretan jaialdiak izango ditu bihartik astelehenera. Larunbatean, Ezkurra-J.Etxeberriak Altuna I-Lizasoren kontra jokatuko dute estelarra, baina, beste hiru partidu ere jokatuko dira: Matxin IV-Gaztelu/Uterga-Agirrezabala; Agirresarobe-


Aizpuru/Sarasua-A. Lekunberri; eta, Juaristi-Olazar/Matxin III-Badiola.

Etxabe Euskalen

Bestalde, Jokin Etxabek Euskalen jokatuko du estelarra larunbat arratsaldean. Hernaniarrak Altuna Illekin jokatuko du Zeberio II-Urrutiaren kontra. □

II. URTEURRENA Xatur Agirre Peruarena

2002ko apirilaren 10ean hil zen



Emazte, seme-alaba, anai-arreba, biloba eta gainerako senideek, oroigarri meza eskaini nahi diogu, eta bertara gonbidatu nahi zaituztegu ezagutzen zenuten guztiak.

Urtebetetze meza, **igandea, apirilak 11**, goizeko 11:00etan, Hernaniko San Joan Bataiatzailea parroki elizan.

Hernan 2004ko apirilaren 9an

ZERBITZUAK

FARMAZIAK

TELEFONOAK

Taxiak: 943 550093

Udalzaingoa: 943 333288

DYA: 943 464622

Anbulatorioa: 943 006666

Jokalari anonimoak: 943 331103

Osteguna: Gomez Justel

Kale Nagusia 14

☎ 943 554892

Gauze: Gomez Justel

Kale Nagusia 14

☎ 943 554892

Ostirala: Gomez Justel

Kale Nagusia 14

☎ 943 554892

Gauze: Ansa

Andoain. Ondarreta

☎ 943 591302

IRAGARKI MERKEAK

Hernani inguruko jatetxe batean barrarako zerbitzari bat behar dugu. Ibilgailua behar da. Deitu: 943 55 02 54 (asteleheneetik-ostiralerak) edo 608 12 07 32

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebral, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

10 urteko Ford Escort familiarra salgai. 1.500 euro. 629 76 30 41